

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideak enpresa batek bere jarduera desberdinak aurrera ateratzeko behar dituen baliabideak dira. Jarduera desberdin horiek baliozko proposameneko eskaintza garatzea, bezeroengana iristea... dira. Baliabideak lau motetan banatzen dira: baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza baliabideak eta finantza-baliabideak.

Baliabide fisikoei dagokienez, baliabide fisikoak izenak dioten bezala objektuak, tokiak.. dira. Gure kasuan beharrezkoak ditugu baliabide batzuk. Gure enpresako langileek wifia duen lokal batean egingo dute lan kudeatu beharreko gauza guztiak kudeatzeko. Lokalean ordenagailuak egongo dira, basoaren diseinua egiteko orriak, pizarrak... behar izango ditugu. Bestalde, mugikorrek ere beharko ditugu gure artean hitz egin al izatko.

Baliabide intelektualei begiratuta, baliabide intelektualak inork ikutu ezin dituen baliabideak dira, horrela esate arren. Gure marka edukiko dugu genius lens deiturikoa. Horretaz gain, gure basoaren patenteak edukiko ditugu. Bestalde, egile eskubideak izango ditugu.

Bestalde, enpresa kideen organigrama bat planteatu dugu bakoitzak egingo duen lanarekin, kontuan izan gabe elkarketa enpresek egingo duten jarduera.





Giza baliabideak enpresan lan egiten duten pertsonak osatzen dute. Gure kasuan, enpresa guztietan bezala sormena, ezagutza eta gaitasun komertzialak beharrezkoak dira. Sormena beharrezkoa da produktuak sortzeko, gaitasun komertzialak beharrezkoak dira produktuak saltzeko baina gure enpresan bereziki garrantzitsuak dira ezagutzak gure produktua aurrera atera al izateko.

Guk hainbat finantza baliabide izango ditugu. Materiala erosi, soldatak ordaindu, edozein motatako erosketak egin edo negozioa zabaltzeko beharrezkoa den eskudirua edota kreditu lineak izatea ahalbidetzen duen baliabidea da. Gure finantza baliabideak hasieran xumeak izango dira gure aurrezkiak bakarrik ez ditugu, baina azken egunontan finantzio baten bila gabiltz gure enpresa errazago aurrera atera al izateko. Enpresan martxan dagoenean kreditu lineak erabiliko ditugu gehien bat gure langilei ordaintzeko, materiala erosteko...